

Betaurreko ilunak ez ziren eguzkiperako asmatu

RUBELL'S ANTIQUES



WELCOME IMAGES

Ezkerrean, Foster Granten iragarkia; AEBetako enpresa hori izan zen 1929an eguzkitako betaurrekoak publiko zabalarentzat merkaturatzen lehena. Goian, James Aysoughen XVIII. mendeko betaurreko urdinak.

TXINA, XII. MENDEA. Kuartzozko kristalak kearen bidez iluntzeko teknologia garatu zuten eta, hala, lehen betaurreko tindatuak asmatu zituzten. Baina lehen “eguzkitako” horien helburua ez zen ikusmena babestea, betaurrekoak janzten zituenaren aurpegi adierazmena ahal zen neurrian ezkatzea baizik. Izan ere, betaurreko belzkarak erabiltzen lehenak Erdi Aroko Txinako epaileak izan ziren. Betaurreko horien bidez auzian nahasitakoek azken epaiaren zantzuak garaia baino lehen izan zituzten saihestu nahi zuten. Epaileari poker aurpegiari eusten laguntzen ziotela, alegia; arrazoi beragatik, gaur egun, zenbait poker jokalarik nahiago dute eguzkitako betaurrekoekin aritu.

Beraz, betaurreko tindatuak ikusmen arazoak konpontzeko antiojoak baino mende bat lehenago asmatu zituzten. Alessandro della Spina fraide veneziarra izan zen XIII. mendean betaurreko neurtuak asmatu zituen. Asmakizunaren monopolioa Veneziak izan zuen urte luzez, baina, azkenean, 1430eko hamarkadan, betaurreko neurtuak Txinara iritsi ziren. Eta kuartzozko kristalekin egin bezala, txinatarrek Italiatik etorritako leiur berritzaile horiek ere ketu zituzten, ikusmen arazoak zituzten epaileen mesederako.

1752an, James Ayscough optikari eta diseinatzaile ingelesa urdinez

eta berdez tindatutako lenteekin esperimentatzen hasi zen. Baina haren helburua ere ez zen begiak eguzki izpietatik babestea; koloretako leiur tindatuen bidez zenbait ikusmen arazo hobetu zitezkeela uste zuen.

XIX. mendearen amaieratik XX. mende hasierara, eguzkitako betaurrekoen erabiltzaile nagusiak sifilitikoak izan ziren; zehazki, sifilitiko aberatsak, produktua oso garestia baitzen. Sifiliaren sintometako bat argiarekiko sentiberatasuna da, eta beraz, gaixotasun benereok bultzatuta eman zitzairen betaurreko tindatuei egun duten erabilera nagusia; ikusmena gehiegizko argitik babestea. Jakina, eguzki izpien ziztada begietan noztzeko ez da nahitaezkoa sifiliak jota egotea, eta eliteak, betaurrekoen prezioa ordaintzeko aukera zuten bakanak, eguzkitakoak erabiltzen hasi ziren.

Eguzkitako betaurrekoen erabilera 1929an hasi zen demokratizatzen. Sam Foster buru zuen Foster Grant enpresak eguzkitakoak masiboki ekoizteari eta banatzeari ekin zion Atlantic Cityn, eta horrek prezioak nabarmen jaistearen eragin zuen. Handik aurrera ez zen beharrezkoa izango aberatsa, sifiliduna edo epaile txinatarra izatea eguzkitakoak eramateko. ■



Arrastoak

Bareak, arma kimikoen aurkako teknologia

LEHEN MUNDU GERRAN arma guztiek, kimikoek barne, garapen izugarria izan zuten: negar gasa, ziape gasa, fosgenoa... Horien aurkako babes bakarra gas maskarak ziren, baina denbora guztian jantzita eramatea ezinezkoa zenez, AEBetako armadak “gas toxikoak eta eragile kimikoak garaiz detektatzeko gailu” baten beharra zegoela erabaki zuen.

Orduan, Paul Bartsch (1671-1960) malakologoak bareak aztertu zituen eta gas kaltegarriak gizakiek baino askoz lehenago atzematen zituztela ikusi zuen. Horrek tarte handiagoa emango zien soldaduei maskarak jartzeko. Horrenbestez, 1918an, Lehen Mundu Gerrako azken bost hilabeteetan, AEBetako osteeek gasen aurkako “gailu” berria eraman zuten gudu-zelaira: barruan barea eta esponja hezea zituen kartoizko kaxa. ■



OBSCURIO

AEBetako soldadua gas maskara jarrita, 1919an.